

❖ BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

● ON-LINE BIDEZKO KOMUNIKAZIO KANALAK

Web-orria



Web orria Wix bidez egingo da eta 2.000€-ko kostua izango du. Hau mugikorretarako ere optimizatuta egongo da. Blog moduko bat izango litzateke, honako hauek barne hartzen dituena: online mahaiaren erreserba, elikadura-aholkuak, saltzen ditugun produktuen argazkiak eta informazioa... etab.

Facebook-eko orrialdea



Facebooken kontu bat izango dugu, gure kafetegiaren informazio guztia zabaldu dadin eta, beraz, prestigioa irabaz dezan. Honek ez du inolako kosturik izango, eta astean bost post egingo dira: astelehena, asteartea, asteazkena, ostirala eta larunbatetan.

Instagram



Instagramean ere kontu bat izango dugu, bertan argazkiak eta gure produktuei buruzko informazioa igotzeko. Honek ere ez du inolako kosturik izango, eta "influencer" eta horrelakoekin harremanetan jartzen saiatuko gara, jende gehiagok gure negozioaz jakin dezan.

- OFF-LINE PUBLIZITATEA ETA KOMUNIKAZIOA

Kafetegia off-line hedatzeko, honako ekintza hauek egingo ditugu:

- Kartak eta arbelak ipini kafetegian



Honek 1.000€-ko kostua izango du. Honekin gure produktuak modu errezean irakurtzea ahalbidetuko dugu. Gainera, mahai bakoitzean kartaren QR-a kokatuta egongo da, bezeroen erosotasuna bermatzeko.

- Buzoning

Liburuxkak eta deskontuak, 350€-ko kostua izango dutenak.

- Parabrising



Liburuxkak utziko ditugu autoen haizetakoetan, kafetegitik 2km-ko erradioan, 400€ balioko duena.

- BANAKETA KANALAK

Gure enpresak izango duen banaketa-kanala presentziazkoa izango da.